

Pentsamendu bitarraz beste

XX. mendearen hondarrean Euskal Filologia EHUn ikasi genuenok –edo gure promoziokoek behintzat– ez genuen ikasgelako horma artean Joxe Azurmendi izenaren oihartzunik entzun, ez ginen irakasleen bidez haren pentsamenduaren edota literaturaren lerro artera bildu. Azurmendi irakurtzeko gomendioa unibertsitate-garaiko beste ikasketa-gune batzuetan jaso nuen neuk: lurlean nonahi ikaskideekin eginiko eserialdi luzeetan, korridoreetako elkarriketetan, taberna bazterretan... Unibertsitate-giroko ertzetan egin nuen topo neuk Azurmendiren pentsamenduarekin, ikaskideen eskutik egin ere.

Euskal Filologiako ikasketetan Azurmendiren lanetara hurbildu ez izana garaiko joera orokorraren erakusle da: euskal pentsamenduari loturiko adarrek (antropologia, filosofia, soziologia...) ez zuten lekurik, ezta literaturaz besteko euskal kulturako adarrek ere. Ez zen ardatz, hortaz, Azurmendiren belaunaldiko pentsamenduaren kokapen integrala: artea, kultura, gizartea, pentsamendua eta politika gurutzatzen zituzten *euskal* begirada horiek guztiek elkar elikatzen zuten ezagutza-esparru kokatutzat hartzen zituena.

Lizentziatura garai hartan (1995-1999), batik bat Azurmendiren pentsamendu politikora heldu nintzen, *Espainolak eta euskaldunak* (1992) eta *Demokratak eta biolentoak* (1999). Gerora Azurmendiren beste hainbat lanekin gertatu zaidana bizi izan nuen lehen aldiz: esperientzia eta gertaera soziopolitiko eta soziokultural zenbait –izan pertsonalak, izan kolektiboak– politizatzeko, historizatzeko eta gorpuzteko pentsamendu-era berriekin egin nuen topo. Azurmendiri irakurri nizkion lehen liburu haiek nire ibilbidean mugarri izan ziren, besteak beste, nire pentsatzeko eta egiteko moduetan hiru joera hauek elikatu zituztelako: alde batetik, zapalkuntza-ardatzen genealogiez pentsatzera eramanez, ninduten, baita zirikatu ere herri- eta hizkuntz zapalkuntzak beste za-

palkuntza-ardatzekin korapilaturiko genealogietan arakatzeko; beste alde batetik, hitzen adierak gudu-zelai izatearen kontzientzia piztu zuten nigan; azkenik, pentsamendu bitarraz beste galdekatzeko tema erein zuten nigan, bitartasun itsuetan eraikitako interpretazio-markoek sorturiko bortxak ikusgai egitearekin batera.

Aldi berean, neure gorputzean bizi izandako bortxa eta izu zenbait izendatzeko zein ulertzeko tresnak eman zizkidan Azurmendiren pentsamenduak. Hamasei urte nituela jabetu nintzen torturaren existentziaz, Gurutze Iantziren hilketaren berri izan nuenean. Gertaera hark neure kontzientzia politikoa zeharo astindu zuen, torturaren kontra eta estatu-bortxaren kontra aritzeko halako ardura bat sentiarazi zidan. Nerabezaroko ezinegon eta izu hura argitzen lagundu zidaten Azurmendiren lehen irakurgai haiek, torturaren logika eraikitze mekanismo zenbait aletzen zituelako bertan –geroko hainbat lanetan ere sakondu du torturagarritasunaren eraikuntzan: esate baterako, *Barkamena, kondena eta tortura* (2012) edo *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk* (2018) lanetan—. 2025eko udan bertan, irakurgai horiek ditut akuilu, Olatz Dañobeitiaren *Sorginak, putak, terroristak. Indarkeria matxistaren ertzak: tortura politikoa* (Txalaparta, 2025) liburu-idazketan bidelagun izaten ari naizela, Emagin elkarteko kideokin batera.

Neure kokapen soziopolitiko garaikidean Azurmendiren itzala luzea da, baina, nago laburxeagoa dela itzal hori neure gogoeta soziokulturretan. Herrena dudala hortxe, ziur asko euskal kultura garaikideak gorpuzturiko pentsamendu gehienaren antzera. XXI. mende hasierako neure unibertsitate-diziplinatze (*espainol*) hartan ikasitako diskurtsoez, moduez eta markoez beste egiteko urratsak egin beharrean naiz, eta ziur naiz Azurmendi akuilu ezinbesteko izango zaidala bide horretan ere. Badugu, beraz, Azurmendi omentzeko bide eraginkorra eta zintzoa: datozen hamarkadetan euskal kulturaren kritika-bideak eta euskal kulturaren teoriak pentsamendu *azurmenditarren* itzalaz blaitzea.